

ARIZMENDIARRIETAREN GOGOETAK INTERKOOPERAZIOA-KOOPERAZIOA

Arizmendiarietaren filosofiarekin jarraituz, hilabete honetan berriro Interkooperazioa-Kooperazioari buruz arituko gara, gure Esperientzia kooperatiboaren ezaugarri nagusia baita. 2017ko azken Kongresuan hausnartu eta onartu zen “MONDRAGONek, elkartutako kooperatiben multzo bat den heinean, batez ere elkarren arteko lankidetzagatik du zentzua” eta “areagotu nahi diren balioetako beste bat da”.

Gizakiek eta herriek, loreek eta bestelako izaki batzuek bezala, bakarrik ez baina denak batera ibilita bizirauten eta irabazten dute. p295

Beste gogoeta batzuk Interkooperazioa-Kooperazioaz

Egia esanda, denok gara solidarioak; horretarako ez da beharrezkoa enpresa kooperatibo bereko kide izatea. Gero eta gehiago, lanaren banaketa gorakor batean oinarrituz egituratzen da ekonomia; dena egiten da denon artean. Nekazaritza sektorea, industria sektorea, zerbitzu sektorea, denak ere komunitate bereko kideak dira, prozesu ekonomiko bereko kideak. Beraz, kontua da oinarritzko elkartasun horren kontzientzia hartzea, sentibera izatea eta elkartasun horren askotariko alderdiak kontuan hartzea. p311

Denok gara uste duguna baino zordunago besteei. p298

Lurralde arteko elkartasuna. Ezinbestekoa da, beraz, probintzia garatuek defentsa jarrera hartu beharrean, irekiera eta elkartasun handiz jokatzeko, bai Guztien Ongiaren gestoreen aldetik bai herritar xumeen aldetik. p442

Lankidetzak da norberaren borondatearen mugak onartzen jakin duten pertsonen arteko batasuna, guztien ongiak hala eskatzen duen neurrian. p458

Kooperatibismoak hauxe du ona: gizakia bere arazoan aurrean jartzen saiatzen da, ez bakarrik, baizik eta modu solidarioan, beste batzuekin bat eginda. p465

Hona hemen garaile izan nahi duen gizakiaren formula: ez borrokatu bakarka. p304

Osa dezagun bere komunitate izaeraz uste sendoa duen komunitate bat eta sekulako indarra izango dugu. Kolabora dezagun denekin bereizkeriarik egin gabe, borondateko gizakiekin beti ere. p321

Elkartasuna ez da aldarrikapen teoriko hutsa, baizik eta jardunean eta agerian jarri beharreko zerbait, talde lanaren eta elkartzearen mugak gogo onez onartuz, horixe baita elkarren arteko laguntasuna gauzatzeko modua. p329

Kooperatiba egunero-egunero berreraiki eta berritu behar da. p547

Esperientzia hau gizakiarengan eta gizakiaren gaitasunean konfiantza jartzen duen espiritu berri batekin lotuta dago. Kasu honetan, biziberritu egiten dira askatasunaren, duintasunaren eta justiziaren zentzua, zeinak ezelako dudarik gabe egiaztaturik baitaude gure lurreko gizakien idiosinkrasiaren adierazle diren erakunde tradizional eta demokratikoetan. Gure ezaugarrietako bat zentzu praktikoa izan da, aukeren alorrean jokatzeko jakitea, idealez arduratuta eta idealoi uko egin gabe. Denon onerako, aukerak biltzen eta ez alperrik galtzen jakin dugu. Elkartze prozesuak ez dira bideragarriak neurritasun barik, batzuek eta besteek onartu behar dituzte eta, normalean, denek sakrifikatu behar dute beren posiziotik zerbait. Erradikalizazioek hautsi egiten dituzte gure herriaren kualitatetik konstanteenak eta herritarren giza nahiz gizarte bertuteak. Horixe da baieztatzen eta desiratzen duguna, kontuan izanik herri honen espirituren berezitasunak zeintzuk diren: ekintzara jotzea espekulaziora bainoago; aurrera egitera, menperatzera bainoago; askatasuna, foruak eta lanean nahiz lanaren alde nork bere burua forma askotan gauzatzeko bizi espazioa maitatuz eta arretaz zainduz, denon mesedetan. p546